

Elgoibar 1361. zenb.
XXXII. urtea - 2025/03/07



Elkar hartuta





GURE MAURIZIAK!

Triki kalejira, omenaldia eta *Aire!* dokumentala

Martxoak 11, asteartea

18:30 Kalejira, Kalegoen plazatik
Herriko Antzokira.

19:00 Omenaldia eta Aire! dokumentala,
Herriko Antzokian. Doan.



argazki
zine Alaba



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Lere Kerexeta, Nagore Cancio, Saioa Rodriguez, Iker Lauzirika, Arkaitz Uranga, Naia Aizpurua, Andoni Segundo **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



x.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet



mastodon.us/@barren@tkm.eus

Naia Aizpurua

Itaiako kidea

Eta zu, zein aldetan zaude?



**"Denbora da
Martxoaren 8ak
zuen izaera iraultzailea
desitxuratu zela"**

Emakume bat erail du bart gauean senarrak, beste asko galbidera eraman gaitu lanak. Guztien mi-seriaren amorrua daramat", dio Ekidak eta Itaiak Martxoaren 8aren harira sortu berri duten kantak, eta modu ezin hobean islatzen du emakumeon egoera.

Martxoak 8a, Emakume Langileon Nazioarteko Eguna, askok aspalditik agendan gorritz markatuta duguna. Hala ere, denbora da data honek zuen izaera iraultzailea desitxuratu zela. Gezurra dirudi 1910ean Emakume Sozialisten Bigarren Internazionallean borrokarako proposatu zen hura, gaur egun, instituzioek eraikinak mozez argiztatzera eta enpresa handietako jabeek genero kuotak aurpegia garbitzeko erabiltzera mugatu izana, berdintasunarekiko konpromisoa erakusteko. Nahiz eta gero agerian geratu den ez dutela aldaketa esanguratsurik eragiten.

Bitartean, indarkeria matxistak gure kaleetan eta etxeetan jarraitzen du, lan debaluatuenak emakumeok egiten jarraitzen ditugu, eskuin muturra zuzenean emakumeon aurka dauden neurriak aplikatu nahian dabil eta beste hainbeste adibide. Egoera larria da, eta are larriagoa izan daiteke. Beraz, bizi dugun testuinguru honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da martxoaren 8an kaleak hartzea eta borrokatzea.

Izan ere, posizionatzeko momentua iritsi da. Egun hau izan dadila zein aldetan gauden erabakitzeko: berdintasun egoera urrunegi joan dela uste duten erreazionarioen aldean, aldaketa soilik instituzioen bitartez etorriko dela sinesten duten sozialdemokraten aldean, edo modu independente batean antolatuta zapalkuntzarik gabeko gizarte bat nahi dutenen aldean.

Martxoak 8 honetan irten gaitezen kalera eta bete ditzagun aldarri iraultzailez. Esplotatzaileek, erasotzaileek, epaile eta poliziek jakin dezatela haien egunak amaitu direla. Jakin dezatela orain lehen lerroan gaudela eta ez garela makurtuko!

Eskola publikoko sukaldeko kolektiboak lan-prekariatatea eta elkarrizketarik eza salatu ditu

LAB, ELA eta CCOO sindikatuen deialdiari jarraituz, dagoeneko bi hilabete daramatzagu mobilizazioetan, lan-hobekuntzak eskatzeko eta erakunde eskudunekin benetako elkarrizketa hasteko. Gure borroka eta aldarrikapenak ikusezin bihurtzen dituen jarraipen mediatiko ezaren aurrean, sukaldeko kolektiboak salatu nahi du sektoreak pairatzen duen prekariatate-egoera larria, hitzarmena 2009az geroztik eguneratu ez delako.

Gainera, egoerak okerrera egiteko, Eusko Jaurlaritzak ez ditu ordezkatzeko sortzen diren bajak, ez dagoela langile liberetik argudiatuz, zereendak ireki ere egin ez dituen langile berriak sartu ahal izateko. Horren ordez, joan den astetik lanpostu publikoetako ordezkapenak Auzolan enpresako langileekin betetzea erabaki dute.

Maniobra hori salatu nahi dugu, zerbitzuaren kalitatea arriskuan jartzen duen eta gure lan-baldintzak are gehiago prekarizatzen dituen ezkutu pribatizazio-saiakera bezala. Agintarien aldetik konpromiso irmoa eskatzen dugu zerbitzu publiko duina eta kalitatezkoa bermatzeko, langileentzat lan-baldintza bidezkoak izango dituen.

Pribatizaziorik ez! Kalitatezko zerbitzu publiko baten alde!

Eskola Publikoko Sukaldaritza Kolektiboa

Betiereko itzulera

2009ko urriaren 1a: "2011n hasiko dira Pilarko zaharrentzako etxea eraikitzen". Hiru urtean bukatuko luketela dio albisteak.

2010eko martxoaren 5a: "Pilarko zaharren etxea izango denaren irudia aurkeztu du Udalak". 2011an hasiko lirateke eraikitzen eta hiru urtean amaitu, krisiak lagatzen badu.

2011ko urtarrilaren 3a: "Pilarreko zahar etxeak aurreikusitakoa baino altuera txikiagoa edukiko du". 120 plaza aurreikusten dira egoitzan. 2011n hasi nahiko lituzkete lanak eta 2014n amaitu, mantentzen dira epeak. 1,5 milioi euro bideratzen dira aurrekontuan horretarako.

2011ko apirilaren 26a, kanpainaurre betean: "2012ko udan hasiko dira Pilarreko zahar etxea

eraikitzeko lanak" eta 2014an erabiltzeko moduan egotea aurreikusten da. 150 egoiliarrentzat lekua izango luke eta eskaeraren arabera aparkaleku solairu bat edo bi, bakoitzean 77 plazarekin. Gero lehertu zen krisiaren gordina, eta gobernu aldaketa Aldundian, eta berriro ere gobernu aldaketa Aldundian, eta urte batzuetan isilpean gaia.

2019ko otsailean oster, hauteskundeak horizontean, eta argazkian irribarretsu prentsan: "Pilarreko adinekoentzako egoitza 2022rako eraikita egotea aurreikusten dugu". 130 plazako egoitza eta 140-150 aparkaleku aipatzen dira orain.

2021eko uztailaren 9a, eta argazkia, oraingoan musukoarekin: "2022ko urte amaieran hasiko dira lanak". Urte horretako ekainaren 1ean: "Obrak 2023an hastea aurreikusten da." Eta zifra dantzak jarraituko du: 110-130 plaza egoiliarrentzat eta 70-150 aparkaleku orain.

2022ko abenduaren 1a: eraikitzeko lizitazioa onartzen da. 140-150 aparkaleku plaza aipatzen dira.

2023ko maiatzaren 22a, hauteskunde kanpaina: "2024ko hasieran aurreikusten da hastea obrak". 87 egoiliar plaza eta 70-110 aparkalekura jaitziera. Eraikuntza eta 10 urterako kudeaketa esleitzen da, 88 milioi eurotan. Hauteskunde bezpera batean, seguraski Elgoibarko historian egin den lizitaziorik garestiena? Nori? Bada Viuda de Sainz eta Biharkori (ikus Ahoztar Zelaietaren lanak hauei buruz gehiago jakiteko).

2023ko irailaren 14a: "2024ko udaberrian hasiko dira Errezabal gizarte-zerbitzuen zentroaren eraikuntza lanak". 2026an martxan izatea aurreikusten da. 87 egoiliar plaza mantentzen dira, 70-80 aparkaleku plazara jaisten da berriro.

2023ko azaroa, aurrekontuen onarpena: "2024aren erdialdean hasiko da eraikitzen Errezabal egoitza". Miloi eta erdi eurotik gora proiektura zuzentzen dira aurrekontuan. 2024ko ekainaren 23a: obrak urte amaieran hastea aurreikusten da eta 2027an martxan egotea.

2025eko urtarrilaren 29a: 75 aparkaleku aipatzen dira. Prozesua "laster" hasiko omen da, apirilean edo maiatzean.

2025eko martxoaren 4a. Etxeko leihotik begiratzen dut orube zaharrera: zazpi kotxe aparkatuta, mural gastatuak, arratoiak zulo ezkutueta.

Gora inauteriak!

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiet inauterietako egitarau desberdinak antolatzen ibili diren eragile zein norbanakoei. Pixkat intentsoa izan da, baina merezi izan du; oso gustura ibili gara. Poza eta irribarrea, non-nahi. Lan ikaragarria egin duzue inauterietan, eta ondo egindakoa txalotu egin behar da. Herriko ikastetxeetatik hasita, Gaztelekua, Ludoteka, Sinüose, erraldi eta buruhandien konpartsa, zezenzikletak, dultzaineroak, Haritz dantza taldea, Atxutxiamaika, BARREN, Mauxitxa txaranga, Jubilatuen Biltokia, Biraka dantza taldea, Musika Eskola, tabernak, dendak... Eskerrik asko guztioi. Datorren urtera arte zain geratzen gara!

A.Z.

Baina aurtun, bereziki, astearteko *Birakauteriak* ikuskizuna goraiatu nahi dut, suge handi eta luze horrek kalejirari ukitu berezia eman zionlako. Eta, Kalegoen plazan, Mauxitxa txaranga erdian zutela, sugeak, dantzariak eta, azkenik, erraldoiek egin zuten dantzaldia aparta izan zen benetan.

Badakit buruhandiak suge luze horrekin batera ateratzea ez zela bateragarria (buruhandien eta umeen lasterketekin sugea apurtu eta baten batek mina hartu zezakeelako), baina larunbatean irten ziren, eta iruditzen zait noizbehinka gauza berriak eta berritzaileak sartu behar direla beste talde batzuei aukera emateko. Beraz, nire esker ona adierazi nahi diet Biraka taldekoei eta Inauterietan parte hartu duten guztiei. Eskerrik asko.

Z.S.

Txalo bero bat

Aurtengo Inauterietako giroa txalotu nahi dut; izan ere, elgoibartarrek lan handia egin dute mozorrotu eta gure herria alaitzeko.



Emilia Ansola Bascaran

2025eko martxoaren 5ean hil zen, 99 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I.URTEURRENA

Petra Arana Bastida

2024ko martxoaren 7an hil zen, 100 urte zituela. Haren oroimenez I.urteurrenako meza izango da, domekan, martxoaren 9an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz parrokian. Joango zaretenoi, alde zuretik eskerrak.

Zure irribarrea gurekin betirako.

Etxekoak





Izan al du eraginik EUSKARALDIA ariketak zure hizkuntza-ohituretan?



ENEKO ETXANIZ

"Txapa jantzi eta txapa eman edizio guztietan egin dut"



ENCARNI MIGALES

"Bezero batzuek asko eskertzen dute dendan euskaraz egin ahal izatea"

Euskararekin konprometitua nago, eta ikastolako Euskara batzordeko kide ere izan naiz urteetan, beraz, hasieratik hartu izan dut parte Euskaraldian. Ofizialki erregistratuta egoteko uste dut 16 urte egin da izan behar direla, beraz, hasierako edizioetan uste dut ez nuela izena eman ofizialki, baina txapa jantzi eta txapa eman edizio guztietan egin dut. Bi rolak bete izan ditut. Nire profila gehiago lotzen da Ahobizirekin, baina Belarriprest txapa ere jantzi izan dut, euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituen jendea niregana euskaraz zuzentzeko errazago izango zela uste nuelako. Egia da bi roletan sentitu naizela eroso, ni euskaraz bizi naizelako, txapa eduki edo ez, baina bai konturatu naiz ariketak irauan duen denboran gatzelaniaz hitz egiteko ohitura dutenekin saiakera handiagoa egin izan dudala euskarari eusteko. Bestela errazago jotzen dut haien hizkuntzara, eta txapak ematen du konpromiso moduko bat.

Nire bueltan ikusi dut Euskaraldiarekin bat egin duen jende asko euskaldunduta zegoela aurretik, beraz, ez dut uste ariketak beraien hizkuntza-ohiturak aldatu dituenik. Aldiz, normalean euskaraz egiten ez didan jendeak, Euskaraldian ere ez dit euskara gehiago egin, nahiz eta nire paparrean txapa ikusi, batzuek erabateko desinteresa erakutsi izan dute ariketarekiko. Hala ere, iruditzen zait horrelako ekimenak beharrezkoak direla, euskarari bultzada emateko.

Ez dut inoiz dudarik izan, eta lehenengo ediziotik hartu izan dut parte Euskaraldian. Batzuetan Ahobizi izan naiz, eta beste batzuetan, Belarriprest. Ni egunerokoan Ahobizi naiz, eta euskaraz bizi naiz, baina entzuteko ere prest nago beti, beraz, Belarriprest rola ere bete izan dut. Txapa jantzita irteten nintzen kalera egun horietan, eta niri iruditu zitzaidan jendeak gehiago egiten zidala euskaraz, hasieran batez ere. Gauza berria zen txaparena, eta kuriositatez bada ere, jendeak egiten zuen gehiago. Nik jende aurrean egiten dut lan, eta guregana askotariko bezeroak etortzen dira, euskaldunak eta euskaraz ez dakitenak ere asko, baina nik lehenengo hitza euskaraz egiten diet denei, eta askok, nahiz eta euskaraz ez jakin, euskaraz erantzuten didate. *Egun on, eskerrik asko, agur...* Hitz solteak bada ere, esaten dituzte. Nire lankidea ere ez da euskalduna, eta sarritan galdetzen dit nola esaten diren gauzak euskaraz, eta ni saiatzen naiz erakusten. Bezero batzuek asko eskertzen dute euskaraz egin ahal izatea dendan. Niretzako euskara oso hizkuntza berezia da, eta Euskaraldiari esker saiatzen naiz jende gehiagorekin egiten euskaraz, baina badaude batzuk ez dutenak nahi. 16 urterekin hasi nintzen euskaltegian euskara ikasten, eta gaur egun, euskaraz bizi naiz. Etxean ere euskaraz egiten dut orain umeekin, eta gure hizkuntza da.



San Roke kalea, 20
Elgoibar

**TEXTIL HOGAR
NEURRIRA EGINDAKO
GORTINAK ETA ESTOREAK.
OIHALETAN AUKERA ZABALA.
ZATUZ ETA ESKATU AURREKONTUA!**

943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Osasun gida



RPS233/13

943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar



RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar

943 740 359

Deba

943 192 192



RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Alta Agire Enparantza, 5 - Elgoibar

943 530 053



RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745



fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 607 953 628
www.fisio-mas.com

RPS 177/12



NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Ebebarria, 22
Eibar

677 551 850



Nico, Donostia

24/12/4 Donostia Ospitalea

**Gipuzkoa egunero
sortzen da.**

Pertsonen ongizate integral handieneko
lurraldea izatea da gure asmoa.

GIPIZKOA

Ekin. Zaindu. Bizi.



'Kerik gabeko gunea' kanpainarekin bat egin du Elgoibarrek

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako *Kerik gabeko guneak* kanpainarekin bat egin du Elgoibarrek, ingurune osasungarriagoak eta tabakorik gabekoak sustatzeko. Informazio guztia eta kartelak jarri dituzten lehen instalazioa Olaizaga-ko kiroldegia izan da, eta egunotan Mintxetan eta IMHko kirol-instalazioetan ere informazio panelak jartzen ari dira. Udaletik esan dutenez, neurri hau "konpromiso zabalago baten parte da, herritar guztientzat osasungarriagoak diren espazio publikoak sortzeko". Aurreikuspenen arabera, datozen hila-beteetan horrelako informazio-kartelak jarriko dituzte udal-erakinetan, erabilera publikoko espazio guztiak kanpaina honetara egokitzeko. Elgoibarko Udalak bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko eta espazio publikoetan airearen kalitatea hobetzen la-



guntzeko duen konpromisoaren barruan kokatuta dago ekimena: "Elgoibarko Udaletik herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu araudi hau betetzen laguntzera, guztiontzako ingurune osasuntsuago bat sortzen jarraitzeko", adierazi dute arduradunek.

Umeentzako zuhaitz landatzea antolatu dute domekarako

Gure natura ezagutzen egitasmoaren barruan umeentzako zuhaitz landatzea antolatu dute domekarako Morkaikok, Atxutxiamaikak eta Baso Biziak taldeek. Muskiritzuko magalean dagoen eta lagapen akordio bidez lortu duten lursail batean egingo dute landaketa, eta parte hartzera animatu

dituzte herriko haurrak. Mintxetako aparkalekuan elkartuko dira 09:30ean, eta handik autoetan joango dira landaketa guneraino. 12 urtetik beherako haurrak heldu batek lagunduta joan beharko direla zehaztu dute. Bukatutakoan mokadutxoa banatuko dute. Informazio gehiagorako: 943 741 746.

Stock feria egingo dute gaur eta bihar Txankakuako merkatariak

Txankakua elkarteko merkatariak kalera aterako dituzte produktuak egunotan, prezio merkeagoan. Atzo hasi zuten stock feria, eta asteburuan emango diote segida. Gaur eta bihar, denden ordutegian, atarietan jarriko dituzte ikusgai beraien salgaiak.



Garizumako ekintzak izango dira datozen egunetan

Elgoibarko parrokiak Garizumako hainbat ekintza antolatu ditu datozen egunetarako. Bari-kuetan gurutz bidea egingo dute, Maalako elizan, 18:30ean. Martxoaren 12an, bestalde, otoitz topaketa egingo dute parrokiari, 17:00etan, eta

hilaren 17an eta 24an garizumako hitzaldiak emango ditu Jose Antonio Badiola Saez de Ugartek. Apirilaren 12rako Arantzazura irteera antolatu dute, eta apirilaren 14an taldeko penitentzia egingo dute parrokiari, 19:30ean.

Gutxienerako pentsioa lanbide arteko gutxienerako soldatarekin parekatzea eskatzeko sinadura bilketa, gaur zortzi

Zazpi urte baino gehiagoan gutxienerako soldata 1.080 eurokoa izan behar duela aldarrikatzen jardun dira pentsiodunak Elgoibarren ere, eta Gaugeretatik eskerrak eman dizkiete kanpaina babestu duten elgoibartarrei, bai eta herriko elkarte eta establezimenduei ere. Denborarekin, koloregabetu egin dira lelo horrekin herriko hainbat lekutan jarrita zituzten kartelak eta orain horiek erretiratzeko asmoa dute, baina ohartarazi dute horrek ez duela esan nahi borroka amaitu denik. "Kontua ez da soilik 1.080 euroko gutxienerako pentsioa lortzea, baizik eta gutxienerako pentsioa lanbide arteko gutxienerako soldatarekin

parekatzea bermatzea, herritar guztientzat justizia ekonomiko handiagoa ziurtatzeko, batez ere emakumeentzat, haiek direlako pentsio txikiak dituztenak", zabaldu dute horren harira.

Ekimen hori babesteko, sinadura bilketa egingo dute Elgoibarren gaur zortzi, martxoaren 14an. IMHn eta MEKAn jarriko dituzte mahaiak, gazteen babes lortzeko. Gaugeretatik esan dute ekimen honek pentsiodunen bizi-baldintzak hobetu ez ezik, langileen eta erretiratuen gutxienerako diru-sarreraren arteko ekitate handiagoa bermatuko duela. Era berean, nabarmendu dute pentsioen genero-arrakalaren kontra egiteko ere balio duela.

Udalerri euskaldunetako gazteentzako udalekuak antolatuko ditu UEMAK

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) udalekuak antolatu ditu udalerri euskaldunetako gazteentzako udarako. Bi txanda eskainiko dituzte: lehena, ekainaren 22tik 30era eta, bigarrena, uztailearen 2tik 10era. Izena emateko epea martxoaren 1ean zabaldu zuten eta martxoaren 31n amaituko da.

Udalekuak aurten ere ibiltariak izango dira, eta gazteek Baliarraindik Idiazabalera egingo dute ibilbidea. Ekimena Tolosaldean hasiko da eta Goierrin barrena igaroko da, Zaldibian eta

Ataunen geldialdiak eginez; herri horietan bina gau pasatuko dituzte parte-hartzaileek. Udalekuek 60 gazterentzako lekua eskaintzen dute txanda bakoitzean, 2007 eta 2010. urteen artean jaiotakoentzat. Helburua udalerri euskaldunetako gazteen artean euskararen inguruko sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta sare-lana sustatzea da. Parte hartu nahi duten gazteek UEMAK horretarako prestatu duen galdetegia bete beharko dute. Informazio gehiagorako: uema.eus.

Kolaboratzaile berriak ditugu BARRENEN



Jabetuko zineten kolaboratzaile berriak batu zaizkigula BARRENeko taldera. Iritzi atalean Arkaitz Uranga, Naia Aizpurua, Iker Lauzirika, Alaitz Almortza eta Irene Makazagak haize freskoa ekarriko digute, eta urteek ematen duten eskarmentutik

arrituko zaizkigu, txandaka, Angel Mari Tobajas, Andoni Segundo eta Angel Ugarteburu. Herriko arbola bereziak aurkeztuko dizkigu Segundok, eta gure inguru gertuko ondare geologiko, historiko eta paisajistikoaren berri emango digu Tobajasek.

BIDE URRATZAILEAK

✍️ Aina Argoitia

Elgoibarko Lanbide Heziketaren 125. urteurrenaren baitan eta Martxoaren 8aren testuinguruan, Elgoibarren formakuntza teknikoak jaso zuten lehen emakumeengan jarri dugu fokua asteon. 1967ko uztailaren 24an baimendu zuen Espainiako Hezkuntza Ministerioak Lanbide Heziketan Ikaskuntzarako-titulurako Delineazio adarra eskaintzea, eta zabaldu zitzaizen atea emakumeei Elgoibarko Orientazio eta Ikaskuntza Eskolan (gaur, Meka), estreinakoz. Juan Antonio Trincado Laorden zen orduan ikastetxeko zuzendari eta Jose Mari Bastida ikasketaburu [1974an zuzendari izendatu zuten]. Dozena bat emakumek eman zuten izena, ordura arte gizonezkoena zen mundurako.

Bide-urratzaileak izan ziren, baina kosta egiten zaie beren buruei aitortzea. "Ez dakit zer meritu egin dugun", dio Marixabel Aizpuruak mahaira batzerako. Elgoibarko Orientazio eta Ikaskuntza Eskolan (gaur, Meka) ikasketa teknikoak hasi zituzten lehen emakumeen taldekoa izan zen Aizpuruak, Pake Garziarekin batera. Delineazio Ofizialtza ikasi zuten. "Dozena bat emakume hasi ginen, eta zortzik amaitu genituen ikasketak: Ana Mari Lakunza Oyeregik (+), Maria Asun Lopez Garciak, Belen Etxeberría Epeldek, Begoña Zorrakin Berrizbeitiak (+), Pilar Barezek, Maria Jesus Astigarraga Zubiaurrek, eta guk biok, Marixabelek eta nik". Haien antzera, Delineazio Ofizialtza egin zuen solasaldira gonbidatu dugun hirugarren lagunak ere, Ana Loiolak. Laugarren promozioko ikaslea izan zen Loiola, eta ikasketak amaitu eta bat, Etxe-Tarren hartu zuten lanerako. Hantxe egin zituen erretiroa hartu arteko 40 urte.

Elgoibarren emakumeentzako aukera handirik ez zen garaian matrikulatu ziren Delineazio Ofizialtzan, eta Mekari zor diote aukera eman izana. 1967. urtea zen. Jose Mari Bastida zen orduan ikastetxeko ikasketaburua, gerora,



*M.Jesus Astigarraga, Ana Loiola, Marixabel
M.Isabel Eguren, Pake Garzia,*

*"Gure lotsa eta erreparo guztiekin
hasi ginen, 14-15 urterekin,
eta ikasketak amaitu genituen urtean
bertan abuzturako lanean
hasita geunden"*

- PAKE GARZIA -

1974an, zuzendari izendatu zutena, eta hark azaldu du testuingurua. Garai hartan, neskek eta mutilek bereizita ikasten zuten Elgoibarren, eta behin 14 urtera iritsitakoan, bi aukera zituzten emakumeek: Ana Etxeberriaren akademia [Señorita Anita] edota mojen eskola Mendaron. Mekan, Lanbide Heziketa ematen zuten, baina gizonezkoen mundua zen hura artean. 1967an, hala ere, eskolako zuzendaritzak Elgoibarren Delineazio Ofizialtza ematen hasteko eskaera egin zion Hezkuntza Ministerioari eta iritsi zen uztailan Madrilan onespina. Emakumeengan pentsatuta egin zuen eskaera zuzendaritzak, Elgoibarren ez zegoelako haientzako aukera



*Aizpurua, Carmen Diego, M.Jesus Insausti,
M.Asun Lopez eta Maria Perez.*

***"Gure amak aukera ikusi zuen han
niretzat, eta esango nuke oso
ausarta izan zela ni hara bidaltzen.
15 urte nituen eta oso garbi nuen
lehenbailehen hasi behar nuela lanean"***

- MARIXABEL AIZPURUA -

handirik, baina baita eskolak hazteko bidea ikusi zuelako ere. "Eskola txikia zen gurea. Eibarko Armeria Eskola lehiakide handia zen guretzat, eta guk ere egin behar genuen zerbait ikasle kopurua handitzeko", gogoratu du Bastidak. Deialdia egin zuten eta dozena bat emakume matrikulatu ziren estreinako urtean. "Gure lotsa eta erreparo guztiekin hasi ginen, 14-15 urterekin, eta ikasketak amaitu genituen urtean bertan, abuzturako, lanean ginen. Danobaten, Agmen, Etxe-Tarren eta Ulazia arkitektura estudioan topatu genuen lana", esan du Garziak.

"Gure etxean ez zegoen dirurik eta gurasoek argi zuten ez nuela Batxilergoa egingo, Batxiler-

goa egiteak unibertsitatera joatea eskatzen zuelako gero eta gastu handia zelako hori. Egoera horretan gure amak aukera bat ikusi zuen han niretzat, eta esango nuke oso ausarta izan zela ni hara bidaltzen. Nik 15 urte nituen eta oso garbi nuen lehenbailehen hasi behar nuela lanean. Oraindik akordatu egiten naiz lehen soldata sobrea hartuta amarengana joan nintzen egunaz", dio Aizpurua. Amaren babesa eta bultzada izan zituen Pake Garziak ere: "Jakin nuenean Mekanikan neskontzako ofizialtza bat jarri behar zutela etxean esan nuen hara nahi nuela joan, eta akordatzen naiz amak nola eman zuen azkena: 'Zu azkarra zara eta hori ere egingo duzu'". Beste garai batzuk ziren, "gaur besteko mimorik ere ez zen izaten sarri etxeko umeentzat", eta horregatik, baloratzen dute orain hainbeste bezekiki amengandik jaso zuten babesa. "Orduan, baina, natural-natural eman genuen guk pausoa, kontziente izan gabe bide bat zabaltzen ari ginela", gehitu du Loiolak.

GIZONEN MUNDUA

Meka gizonena zen orduan, eta gizonen munduan emakumeak sekula ez du errazik izan. Orduan ere ez. Eta zabaldu dute meloia: "Esango nuke irakasle batzuentzat sekulako enbajada izan zela emakumeoi atea zabaldu izana". "Gaurko egunean salagarriak liratekeenak ere entzun genituen han zenbait irakasleren ahotik". "Ez gintuzten ikaskide mutilen pareko ikusten". "Orain onartuko ez genituzkeen bromak ere egin izan zizkiguten ikaskide mutilek, baina oro har, haiek hobeto hartu gintuzten irakasle askok baino. Jose Mari Bastida zen libratzen zen bakarrakoa. Hark bai tratatu gintuen errespetuz". "Bromak eta bestelakoak aparte, moldatu ginen. Geuk ere egingo genuen zeozer, domeketan eskolara joandakoak ere bagara-eta, zigortuta".

Irakasgai orokorrak -matematika, fisika, kimika, historia, gaztelania...- mutilekin batera ikasten zituzten, baina marrazketa teknikoak eta praktikoa -delineazioari lotutako ikasgaiak- neskontzat bakarrik ziren hasierako urte haietan, nahiz eta Ana Loiola hasi zenerako mutilei ere zabaldua zieten eskaintza. "Gu lau neska izan ginen: Mariaje Insausti, Mariasun Isasti, Karmen Diego eta neu. Delineazioan beste sei bat mutil ibili ziren gurekin, eta gainerako ikasgaietan beste 40 bat mutilekin elkartzen ginen".

Hiru urteko ikasketak egin zituzten, eta denek topatu zuten lana ikasketak amaitzeaz batera. Aizpuruaren kasuan, aurretik. "Luis Ulazia arkitektoa etorri zen eskolara bi lagunena bila eta Belen Etxeberria eta biok hasi ginen harenean lanean. Ikasketak amaitu aurretik hasi ginen arratsaldean haren arkitektura estudioan, praktiketan". Planoak diseinatzea zen haien egitekoa. "Etxeetako planoak eta Elgoibarko ikastola berriko planoak ere egin nituen". Garzia Etxe-Tar enpresan hasi zen lanean planoak koptatzen, argibide liburuak prestatzen eta krokisak marrazten. Oroitu du sei bat gizon zeudela garai hartan Etxe-Tarren bulego teknikoan lanean, eta emakume bat: bera.

Antzeko argazkia egiten du Ana Loiolak Etxe-Tarrera iritsi zen egunaz. "Hamabost bat gizon izango ziren bulego teknikoan, eta emakume bakarra: neu". Etxe-Tarren hasterako Rodisatik deitua zioten tailerreko lanerako, baina hura baztertu eta Etxe-Tarren bulego teknikoan hasteko eskaintza hobetsi zuen, delineazio alorrean. Garziaren ordez hartu zuten lantegian, lau urte egin ondoren, bere lekua beste non-bait zegoela iritzita enpresa mundua laga eta Filosofia ikasteari ekin ziolako hark, ondoren irakaskuntzan hasteko. "Gure ikasketak ere ez ziren maila handikoak, azken batean ofizialtza bat egitetik gentozelako, eta asumitzen genuen gure egoera ere, beste garai batzuk zirelako eta normala hori zelako, baina gu orduan *las chicas* ginen lantegian", dio Loiolak. Bat dator Garzia ere. "Bai, bai, *las chicas* ginen. Pertsianak jais-tea-eta gure lanak izaten ziren, emakumeonak. Ez geunden beste langileak bezain baloratuta.



Lehen promozioko ikasleak, gelan.

Esango nuke, hori bai, enpresa munduan itzul-tzaile aritzen ziren emakume langileek prestigio handiagoa zutela".

Eta ezin jakin horren ondorio izan zen, edo beste arrazoiren bat(tzuk) izan ziren, baina ikastetxean ere beherakada izan zuten matrikulazioetan. "Guk bizimodua enpresan egin dugu eta gaur da eguna ezin dudana ulertu nola izan ginen gu lau emakume bakarrik eskolan, lehenengo promozioko guzti hauek lana topatu zutenean ikasketak amaitzeaz batera. Dena den,

aspaldi ez dela izan naiz IMHn gazteei gure lekukotza ematen, eta iruditu zait egoera ez dela gehiegi aldatu, 50 urte pasatu diren arren. Eta ezin dut ulertu. Izan ere, ofizioa ikasita irteten dira eskolatik enpresa mundura, eta industrian, ordutegiak eta soldatak onak dira", dio Loiolak.

Garai hartako matrikulazio jaitziera azaltzeko arrazoi bakarra topatu du Bastidak: "Enpresetan delinearzaile proiektistak behar zituzten eta delinearzaile ona izateko maila handiagoko ikasketak behar dira: ingeniaritza ikasketak". Horregatik beste adar baten aldeko apustua egin zuten eskolan. 1974ko urriaren 9an izendatu zuten Bastida zuzendari Antonio Trincadoren ordeaz, eta 1975eko otsailaren 5ean, Administraritzako adarra irakatsi ahal izateko eskaera egin zuten Madrilerara. "Elgoibarren emakumezkoek eskatzen zituzten ikasketak eskaintzen zituen ikastetxe ofizialik ez zegoenez, pentsatu genuen gizarterearen eskaerari erantzun behar geniola eta emakumeak industria alorreko espezialitateetara erakarri behar genituela". Horretarako, Ana Etxeberriarekin elkartu ziren. Ikastetxetik gertu zuen hark akademia, eta gazte asko prestatzen zituen, enpresen onarpen handiarekin. Hala, 1975eko urriaren 17an, administraritza adarreko gaiak irakasten hasi ziren Mekan, Ana Etxeberrira kontratatuta. Harekin batera, ordura arteko haren ikasle guztiak ere matrikulatu ziren, eta sona hartu zuen eskolak. 1978-79 ikasturtera arte eman zituen Etxeberririk han eskolak, eta hark utzi zuenean Maite Arana eta Kontxi Arana sartu ziren irakasle.

Ordurako, hala ere, beste bide bat hartu zuten Delineazio Ofizialtza ikasi zuten gure hiru protagonistetako bik, Pake Garziak eta Marixabel Aizpuruak. Ulaziaren arkitektura estudioan zazpi urtez lanean ibili ondoren, Elgoibarko ikastolak sortutako haurtzaindegian ari zen lanean Aizpuruak, esaterako. "1976an zabaldu genuen, hogeit hamar urtekin. Lehenengoetako haurtzaindegia izan zen Gipuzkoan, eta hasierak ez ziren errazak izan, jendeak ez zuelako ondo ikusten umeak han lagatzea. Sekulakoak entzuten genituen lankideak eta biok, eta gu, han, isil-isilik. Gogoan daukat garai hartan Lan Ministerioak banatzen zituela dirulaguntzak eta 40 bat emakumeren eskaerak aurkeztu genituela guk, haietako batzuen umeak gurekin egon ez arren", azaldu du.

*"Aspaldi ez dela izan naiz IMHn,
eta iruditu zait egoera ez dela gehiegi
aldatu, 50 urte pasatu diren arren.
Eta ezin dut ulertu. Izan ere, ofizioa
ikasita irteten dira eskolatik,
eta industrian, ordutegiak eta
soldatak onak dira"*

- ANA LOIOLA -

Marixabelen gaurko bi lagunak ziren orduko gizarteak hainbeste kritikaturako ametako bi. "Ume koitaduak! Nola abandonatu daitezke hor!", esaten zuen jendeak. Ni nintzen alaba han lagatzen zutenetako bat. 09:00etan laga eta 18:00etan jasotzen nuen, eta ordurako iristen ez banintzen, han egoten ziren hauek zain", gehitu du Garziak. Familia eta lana bateragarri egitea gaur ere ez da beti erraza, eta gauza askotan aurrerapausoak eman direla uste arren, gaur ere ama gazte zeneko oroitzapenak etortzen zaizkio burura Loiolari: "Ikusten ditut goizetan gurasoak presaka umeak hartuta eta erruki puntu bat ematen didate, gu ere antzera ibili ginen arren, konturatzeko baino lanpetuago. Adinarekin beste modu batean ikusten da dena, baina".

Ezkonduta eta lana lagatzea zen gure protagonistak gazte ziren garaian ohikoena. Etxe-Tarren, Ana Loiola izan zen kontrako erabakia hartu zuen lehenengo emakumea. Kosta zitzaion jakinaraztea. "Kudeatzaileari esan behar izaten zitzaion, eta hura estuasuna! 'Voy a seguir' esan nion nik, eta ¿qué? ¿que vas a salir? erantzun zidan berak". Soka ez zen gehiago tenkatu, hala ere, eta arazorik gabe jarraitu ahal izan zuen bere lanean, baina ez zen emakume guztien kasua izan. "Ezagutu genituen bulegotik tailerrera zigortu zituztenak ere".

Zorionez, urratsak egin dira berdintasuna lortzeko bidean, eta erakundeetatik eta bestelako estamentuetatik ari dira dirua inbertitzen emakumeak STEAM ikaskeketara erakartzeko eta enpresetan kontziliario parekidea sustatzeko kanpainetan. "Egindako bidea ez da sekula alferrik izaten eta jarraitu behar da lanean".

Martxoak 8, lortutakoari eutsi eta emakumeen ahalduntzean eta eskubideen defentsan urratsak egiten jarraitzeko eguna

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekintza antolatu dituzte Elgoibarren eta Mendaron eragile ezberdinek. Bi orri hauetan batu ditugu iritsi zaizkigunak.

✍️ Ainara Argoitia



ELGOIBAR

MARTXOAK 7, BARIKUA

■ **Tardeo feminista:** Zatekeen erromeria taldeak kontzertua emango du 19:30ean, Maalako parkean, eta ondoren DJ Galtzagorriren musika emanaldia izango da leku berean.

■ **Poteo-berriketaldia + afaria:** Poteo-berriketaldi feminista egingo dute 19:00etan Maalan hasita. Ondoren, emakume feministen afaria egingo dute, Kultur kafean.



MARTXOAK 8, ZAPATUA

■ **Autodefentsa tailerra:** Olaizaga kirol taldeak emakumeentzako autodefentsa tailerra antolatu du, Kirol Patronatuaren eta Elgoibarko Udaren Berdintasun Sailaren laguntzarekin. 14 urtez gorakoek eman dezakete izena, eta horretarako Olaizaga kiroldegira deitu behar dute: 943 744 415. Tailerra doan izango da, baina plazak mugatuak izango dira. Kiroldegian bertan egingo dute tailerra, 09:30etik 12:00etara.

■ **Mendi ibilaldia:** Elgoibarko Emakume* Feministen Asanbladak (EFA) mendi irteera antolatu du biharko. 09:00etan elkartuko dira mendirako, Meka aurrean eta eguraldiaren arabera erabakiko dute nora joan.

■ **Manifestazioa:** 13:15ean, Kalegoen plazan elkartzeko deia egin dute, handik abiatuko dute manifestazioa.



■ **Bazkaria:** Manifestazioa bukatu ondorenerako bazkaria antolatu dute, Sigman.

■ **Kontzertua:** Debabarreneko Orfeoia kontzertua emango du Elgoibarko Kultur Etxeko Sotoan, Haizea Emakumeen Kultur Elkarteak antolatuta. 12:00etan hasiko da. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, hainbat konpositore garaikidek hizkuntza ezberdinetan idatzitako kantuak interpretatuko dituzte, tartean euskarazko zenbait ere bai.

MARTXOAK 9, DOMEKA

■ **Antzerkia:** *La maja y la mona* antzezlanaren emanaldia iragarri du Udalak domekarako, Aita Agirre kulturgunean, 12:30erako. *Mona Lisa* eta *Maja Biluzia* obra errepikaezinetako Mona eta Maja gorpuztuko dituzte Maribel Salas eta Susana Soletok aktoreek. Ez dute oso argi izango, baina, nork nor ordezkatzan duen, eta horrek liskarra eragingo du bien artean, nor jatorragoa, nor ederragoa arituko baitira lehian.

Komedia da *La maja y la mona*, eta adiskidetasuna, hipokrisia, irudi estetikoak edo feminis-



moa dira azaleratuko dituzten gaietako batzuk. Gaur egungo gizartean dugun emakume izaerari buruzko gogoeta egitea proposatzen du obrak, umoretik beti ere.

MARTXOAK 11, MARTITZENA

■ **'Gure Mauriziak' ekimena:** Gizonezkoek okupatzen zuten plazara salto egitera ausartu ziren emakume pandero-joleak omenduko dituzte Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalak, Inazio Bereziartua Dantza eta Musika Eskolak, Ongarri zine-klubak, Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta Badihardugu elkarteak antolatu duten ekimenean. Elgoibarren ere aritu dira Maurizien bila eta lau topatu dituzte: Pantxika Zubizarreta Gurrutxaga (1888-1964), Juliana Esnaola Arakistain (1892-1974), Martzelina Zubizarreta Gurrutxaga (1892-1991) eta Juliana Zubizarreta Gurrutxaga (1910-2006).

18:30ean hasiko dute egitaraua, Kalegoen plazatik Herriko Antzokira egingo duten kalejirarekin, eta han, antzokian, izango du segida jaiak. Trikitia, kantua, dantza, omenaldia eta



Aire! dokumentalaren emanaldia izango ditu osagai nagusiak.

MARTXOAK 14, BARIKUA

■ **Antzerkia: 'Amak':** Elena Diazek idatzi eta Begoña Bilbaok zuzendutako obra da *Amak*, komedia estilokoa. Eskola bateko itxarongelan harrapatuta dauden lau emakumeren istorio etsigarria da. Gelan harrapatuta egotean barruak askatzen hasiko dira eta terapeutikoa suertatuko zaie. Amatasunaren alderdi onak eta txarrak azaleratuko dituzte. Lau dira oholtzan arituko diren aktoreak: Iraitz Lizarraga, Tania Fornieles, Oihana Maritoren eta Intza Alkain. Herriko Antzokian taularatu dute obra martxoaren 14an, 19:00etan. Sarrerak Herriko Antzokiaren webgunean eskuratu daitezke: herrikoantzokia.eus



MENDARO

Martxoaren 8aren harira hainbat ekintza antolatu dituzte Mendaron, Udalak, Arno Guraso Elkarteak, Tratu Onen Aldeko Taldeak, Diversas emakume mi-granteek taldeak eta Itaia Euskal Herriko emakumeen antolakunde sozialistak.

MARTXOAK 7, BARIKUA

■ **Ginkana:** Udalak eta Arno guraso elkarteak ginkana antolatu dute gaurko. Euskal Herriko emakume erreferenteak ezagutarazteko eta haiek egindako ekarpenaren berri emateko antolatu dute, 7 eta 12 urte bitarteko gaztetxoentzat. 17:00etan Herriko Enparantzan elkartuko dira aurrez izena emanda daudenak (19:00ak arte).

■ **Erakusketa:** Itaia Euskal Herriko emakumeen antolakunde sozialistak erakusketa zabalduko du, jubilatuen ondoko lokalean, 17:30ean (20:00ak arte). Martxoaren 8aren zentzu iraultzailean jarri dute azpimarra. Horretarako 1907. urtean Konpenhagen egin zen emakume sozialisten bigarren konferentziatik gaur arteko denbora-lerroa osatuko dute.

MARTXOAK 8, ZAPATUA

■ **Autodefentsa tailerra:** Itaiak antolatuta, Gazte-txean, 10:30ean hasita.

■ **Elkarretaratzea:** Itaiak antolatuta, Herriko Enparantzan, 12:30ean.



■ **Antzerkia:** *Mi tercer acto* antzezla-na ikusteko aukera izango da San Agustín kulturgunean, 18:30ean hasita. Adineko aktore baten kamerinoan barneratuko dira ikusleak. Eguzki Zubia da aktorea eta emakume, adineko eta artista gisa bizi duenaren gogoeta pertsonala egingo du. Menopausia iritsi izana ospatzen duen emakumearen papera interpretatuko du Zubiak. Iritzi iraingarriak eraitsi eta ur azalean bizi mantentzeaz ari da, eta adineko emakume eta artista gisa jasaten ari den gainbehera ekonomiko saihesteko darabilen estrategiez. Obra kritikoa da, adinkeria edo adinean oinarrituta gauzatzen den diskriminazioa salatzen dituen.



MARTXOAK 9, DOMEKA



■ **Hitzaldia eta zine-foruma:** *Prohibido recordar* filma proiektatuko dute San Agustín kulturgunean, 17:00etan. Josu Martínez eta Txeber Larreategik zuzendutako lana da, Saturrarango hondartzako kartzelari buruzkoa. Franco jeneralaren aginduz, Saturraran bereziki asaldatzailer eta arriskutsu gisa izendatutako emakumeen presondegi bihurtu zuten. Espainiako toki guztietatik ekarritako 16 eta 80 urte arteko bi mila emakume errepublikano izan zituzten giltzapean han 1937-1944 artean.

■ **Hitzaldia:** *Mujeres antifascistas 1932-1945* hitzaldia emango du Maria Gorosari irakasleak (Durango, 1978). Zuzenbidean lizentziatua, Kazetaritzan lizentziatua eta Komunikazio Doktore Europarra da Maria Gorosari.



KOLOREZ MOZORROTUTA

📍 Ainhoa Andonegi / Ainara Argoitia / Asier Orbea

Argazki gehiago eta bideoak: barren.eus

Kolorez mozorrotu dira bazterrak egunotan, eta jaia nagusitu da Elgoibarren zein Mendaron. Musika Eskolak hasi zituen inauteriak Eguen Gizen Egunez Elgoibarren, eta Mexikoko doinuak interpretatu zizkiguten. Gai beraren bueltan antolatuta zuten jaia Mendaroko ikastolan ere, eta Euskal Inauteria irudikatu zuten Elgoibar Ikastolakoek. Elgoibarko Herri Eskolan aurten barikuan egin zuten jaialdia, eta zapatuan bi herrietan koloretako festak egin zuten eztanda. Martitzenean amaitu ziren inauteriak gurean.



Elgoibar Ikastolak Kilometroak jaia antolatuko duen urtea dela-eta, aurtengo Euskal Inauteria beste urte batzuetan baino bereziagoa izan da, batetik, herriko dultzaineroek eta erraldoiek parte hartu dutelako, eta bestetik, 37 urtez Ikastolako musika irakasle izan zen Regina Arrietari euskal inauteria sustatzen eginiko lana aitortu diotelako. Barikuan egin zuten euskal inauteria eta Olatz Astigarraga Ikastolako Errektore Kontseiluko lehendakariak eskerrak eman zizkion Arrietari euskal kulturari eginiko ekarpenagatik. Hunkituta, talde-lanaren balioa nabarmendu zuen hark, eta go-goan izan zituen berarekin batera lanean jardun ziren guztiak. Bideoa barren.eus atarian.











BERTSIO GAUAK BEROTU ZUEN GAUA

Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak antolatu dute Bertsio Gaua, eta aurten 24 partaide izan dira. Hiru lagunek osatu zuten epaimahaia: Gazte Asanbladako Xabi Goñik, Biraka dantza taldeko Jule-ne Garcia-Abadek eta Taupada Antzerki Taldeko Nerea Cuendek. Honako hauek saritu zituzten:

1. saria, taldeka: Mila eta Ikuska (*Viva la vida*- Dana International), 250 euroko saria.
 2. saria, taldeka: Homer eta Jou (*Baby* - Justin Beaber), 170 euroko saria.
- Bakarkako irabazlea: Jou (*Que Hubiera sido*- Carol G), 170 euro.
- Sari berezia: Otxenteroak taldearentzat (*Nochentera* - Vicco), 150 euro.

Bertsio gaueko argazkiak: 📷 Ane Gonzalez



'Jou' bakarkako irabazlea ezkerrean, eta taldekako irabazleak Mila eta Ikuska.







Kattalin Miner eta Aner Peritzen arteko berbaldia, martxoaren 12an Elgoibarren

Antolatzaileek aurreratu dutenez, gaur egun borborrean dauden gaiez berba egitera gonbidatu dituzte Aner Peritz eta Kattalin Miner Elgoibarrera, eta baita hitz egiten ez denaz aritzeko ere. Elgoibar LGTBİK+, Narturtsik, Elgoibarko Izarra eta Elgoibarko Udala dira antolatzaileak eta *Arrakala!* izena jarri diote solasaldiari. Ez dute gauza gehiegirik aurreratu nahi izan, baina gonbidatu dituzten hizlarien prestigioa eta izena bere horretan nahikoa erakargarri direla uste dute. Martxoaren 12an izango da *Arrakala!* berbaldia, 18:00etan Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan.



Familia antzerkia domekan, Herriko Antzokian



Eneko eta Ixabel hemen bertoko produktuen bila jarriko ditu Eidabe Produzioak taldeak. Zuhaitzentzat bitzita berdea da; Arbirentzat ordea, morea. Bakoitzak era ezberdin baten ikusten ditu gauzak eta ez dute elkar ulertzen, baina hasieran arazo bat dirudiena altxor bihurtzen da. Domekan izango da antzerkia, 16:30ean, Herriko Antzokian.

Helduentzako ipuin kontaketa saioa martxoaren 13an



Ahoz-ahoz egitasmoaren barruan, helduentzako ipuin kontaketa saioa antolatu du Gotzon Garate liburutegiak martxoaren 13rako. Quico Cadaval izango da oraingoan ipuin kontalaria, eta gaztelaniaz emango du saioa. Quico Cadaval aktore, idazle eta narratzaile galiziarra da, eta interpretazio tailerrak ere ematen ditu. 19:00etan izango da, Aita Agirre kulturgunean. Antolatzaileek aurrez izena emateko eskatu dute 943 743 525 edo 688 710 138 telefonoetan edo liburutegia@elgoibar.eus helbidera idatzita.

Sanbartolomeetako Nerabeen Eguna antolatzeko bilera egingo dute gaur

San Bartolome jaietako Nerabeen Eguneko egitaraua diseinatzeko bilera egingo dute gaur arratsaldean, Atxutxiamaiaka aisialdi taldekoek gidatuta. Nerabeek jaietako

beraien egunean zer eta nola egin nahi duten azaltzeko aukera izango dute. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian izango da, 17:00etan.

San Lazarako margolarien lanak Kultur Kafean



San Lazaro egoitzako hamar egoiliarren lanak jarri dituzte ikusgai Kultur Kafean, hilaren 15era arte. Gemma Monreal margolariak ematen dizkie eskolak egoitzan bertan. Bere estudioa laga zuenean erabaki zuen adinekoekin lan egitea, eta egoitzako arduradunei ere ideia bikaina iruditu zitzaion. Azken urte honetan egini-ko 45 koadroekin osatu dute erakusketa. Hamar

lagunek hartzen dute parte pintura tailerrean: Maria Larrañagak, Santos Sanchezek, Maria Cruz Olmedok, Luis Rodriguezek, Trinidad Romerok, Valentina Matek, Estrella Floresek, Maria Nieves Berasuetak, Isabel Iranzok eta Victoria Sanchezek. Gazteena Luis Rodriguez da 79 urterekin, eta nagusiena, Santos Sanchez 101 urterekin. Taberna ordutegian bisitatu daiteke.



'Gelatik Plazara' saioa, Mendaron

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak *Gelatik Plazara* ekimena antolatu du bertso eskolekin elkarlanean, 14 urtez azpiko ikasleei jendeaurrean trebatzeko aukera emateko. 3-4 lagunez osatutako taldeetan 250 ikaslek parte hartuko dute antolatu dituzten zazpi saioetan. Eskualdez eskualde jokatu dituzte kanporaketak, eta saio horietako bat Mendaron izango da, martxoaren 13an, udaletxeko batzar aretoan (17:30). Mutriku, Mendaro, Elgoibar eta Soralezeko bertso eskoletako kideek abestuko dute.

Mus eta tute txapelketak antolatu ditu Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak

Bikotekako herriko mus eta tute txapelketak jokatu dituzte Jubilatuen Biltokian. Martxoaren 10ean mus txapelketa izango da, eta hilaren 11n, berriz, tute txapelketa, biak 17:00etan. Intersatuak biltokian bertan eman beharko dute izena txapelketa egunerako, izen-abizenak, NANA eta

bazkide zenbakia eta telefonoa zehaztuta. Bikote irabazleek eguneko bi menu eta bi txuleta jasoko dituzte saritzat, eta bigarren egiten duten bikoteentzat eguneko bi menu izango dira sariak. Bikote irabazleek eskualdeko txapelketan hartuko dute parte.

Finalerako txartela eskuratu dute Ezpeletak eta Etxebestek

Mendaroko bi aizkolari izango dira Urrezko Aizkorariak txapelketako finalean, Azpeitian, martxoaren 16an. Uxue Ansozregik Oñatin jokaturako finalerdikoan lortu zuen Emakumeen Banakako Urrezko Aizkolari Txapelketako finalerako txartela, otsailaren 23an. Hodei Ezpeletak domekan lortu zuen finalerako txartela, Arkaitz Etxebeste igeldoarrarekin bikotea osatuta. Gizonezkoen XXV. Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketako azken kanporaketa jokatu zuten Urrotzen, eta Ezpeletak eta Etxebestek Ugaitz Mugertza eta Ibai Soroa kanporatu zituzten. Gizonezkoen binakako finalean hiru bikote lehiatuko dira, honako hauek: Hodei Ezpeleta eta Arkaitz Etxebeste, Iker Vicente eta Eneko Saralegi; eta, Julen Alberdi *Txikia IV* eta Jon Rekondo. Emakumezkoen banakako finalean Uxue Ansozregi, Karmele Gisasola eta Laiene Pikabea lehiatuko dira.



Mugiment kirol txartela erabilgarri dago Mendaron

Ehun baino gehiago dira Mugiment Kirol Txartela erabiltzeko aukera ematen duten Araba, Bizkai eta Gipuzkoako herriak, eta Mendaro ere batu da sarera. Txartel horren bidez, Mugiment kirol txartelarekin bat egin duten Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako herrietako kirol instalazioak erabili ahal izango dituzte mendarorek, kostu gehigarririk gabe, eta baita alderantziz ere. Jarduera fisikoa eta kirola egiteko erraztasunak eman eta aukerak biderkatzea da ekime-

naren helburua. Gaur egun, 181 kirol instalazioan erabil daiteke, kiroldegiak, frontoiak eta igerilekuak barne. Erabiltzaileek Kirol Txartela Mugiment aplikazioa deskargatu beharko dute (erabilgarri dago Google Playn zein App Storen), eta erregistratu. Aplikazioaren bidez egin ahal izango dituzte erreserbak: kiroldegi bakoitzak kudeatuko ditu erreserba horiek (onartuz edo ukatuz). Kirol instalazioan, NAN txartela eta txartel birtuala erakutsi beharko dituzte.

Berdinketa, sari txikiegia zulotik irteteko

C.D. Elgoibarko bi talde nagusiek puntuak behar dituzte lehenbailehen sailkapeneko zulotik irteteko. Bi taldeek berdinketarekin konformatu behar izan zuten azken jardunaldian. Haundi emakumezkoen taldeak bana berdindu zuen Mintxetan Ostadar taldearen aurkako neurketan. Jaitsiera postuetan jarraitzen dute, 14. postuan, 16 punturekin. Puntu bat gehiago du Irauli Bostekok eta sei gehiago Hernanik. Zumaikoren aurka jo-

katuko dute asteburuan, Zumaian. Gizonezkoen Haundi taldeak ere banako berdinketa ekarri zuen Bergararik, eta postu bat behera egin dute sailkapenean; azkenaurrekoak dira orain, 21 punturekin. Aloña Mendik eta jaitsiera postuetatik kanpo dagoen lehen taldeak ere, Beti Gaztek, 21 puntu dituzte. Haundik Urolaren aurka jokatu du zapatuan Mintxetan (16:30). Klubetik taldea animatzera joateko deia egin dute.

200 bat txirrindularik parte hartuko dute kadeteen Mendaroko lasterketan

Mendaro Herria IV. Sari Nagusia lasterketa antolatu du Mendaroko Txirrindulari Elkartek (MTE) domekarako, martxoaren 9rako. MTEtik jakinarazi dutenez, 200 bat laguneko tropela espero dute. Txirrindulari gazteak Herriko Enparantzatik abiatuko dira 11:00etan, eta 48 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Lehen txirrindulariak 12:00-12:15 aldera helmugaratzea espero dute antolatzaileek. Herriko Enparantzan egongo da helmuga eta antolatzaileek eskatu dute ez aparkatzeko Herriko Enparantzan, frontoi parean eta helmuga jarriko duten inguruan. Elgoibarko Lagun Taldea Txirrindulari eskolako sei kidek hartuko dute parte lasterketan: Enaitz Iraolagoitia eta Oier Arriola mendarorrek,



Danel Garaizabal, Julen Rodriguez eta Fran Jayder elgoibartarrek eta Xabi Barrueta eibartarrak.

Elgoibarko Lagun Taldeak gaur, hilak 7a, aurkeztuko du denboraldi berriko taldea, Azkoitian, babesle duten Bernardo Ecenarro (BESA) enpresan. Joan zen astean hasi zuten Gipuzkoan errepideko denboraldia, eta aste honetan hiru lasterketatan lehiatuko dira BESako txirrindulari gazteak. Bihar arratsaldean eskolako txikienek Oñatin izango dute lasterketa, domeka goizean Mendaroko lasterketan arituko dira taldeko sei txirrindulari kadeteak, eta arratsaldean lehiatuko dira juniorrak, Mutrikun.



Pilota Egunaren 25. edizioa egingo dute bihar

Finalerako sailkatu diren 34 bikoteek 17 partida jokatu dituzte Elgoibar Ikastolak antolatzen duen Pilota Egunean, 12 tantora. Kalegoen plazako frontoian jokatu dituzte finalak 10:30etik aurrera. Aurtengo ekitaldia berezia izango da, 25. edizioa izateaz gainera kilometroak jaia ospatzeko urtea delako eta hori dela eta ekitaldi bereziak antolatu dituztelako: pilotak egiteko tailerra, tonbola...





Mikel Leon
inmomikel@gmail.com

747 459 343
San Ignazio kalea 1,
20870 Elgoibar

 @mikel_inmobiliaria

Mikel
INMOBILIARIA

WEBGUNE BERRIA! Bisita gaitzazu! www.inmobiliariamikel.com



LANA**Eskaintza**

Odontologoa behar dugu Ermuko Hartz Klinika baterako. Lanaldi partziala, adosteko. Odontologia zaharberritzailean esperientzia balaratuko da, nagusi zein umeetan. Interesatuak bidali CV-a niklinika@gmail.com helbidera.

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest nago. Titulua eta esperientzia handia ditut.
613 410 007

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **654 994 405**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **614 114 360**

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Garbiketa lanak egiteko ere prest. Esperientzia. **643 505 827**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erizaina naiz, eta urteetako esperientzia daukat, baita titulu soziosanitarioa ere.
643 505 662

Adinekoak zaintzen edota garbiketa lanetan aritzeko prest. Orduka. Astebarruan, 12:00etatik aurrera nago libre. Asteburuetan etxeko langile moduan aritzeko ere prest nago. **631 785 168**

Adinekoak zaindu edo etxeko garbiketak egingo nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest nago. Berehala lanean hasteko.
632 915 336

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
631 319 476

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxean nahiz ospitalean. Titulu soziosanitarioa daukat eta urte askotako esperientzia.
660 511 781 / 943 742 330

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Arratsaldez edo gauez.
642 701 710

BESTELAKOAK

Oraiko diskoteka zeneko *posabasoaren* bat nahiko nuke, eta baita Pelouse diskotekako poxpolo kaxa bat ere. Horrelakoren bat duenari eskertuko nioke nirekin harremanetan jartzea. **688 624 326**

Hiru asteko txakur-kumeak oparitzen dira. Border Collie eta arratoi txakur mezkla. **628 659 427**



Gurpildun aulki elektrikoa salgai. Oso erabilgarria, dutxan sartzeko modukoa. Estreinatuta gabe dago. **652 735 554 (Aitzol)**



administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoako Finantza Administrazioaren Kontsekoa



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Gure garaje komunitatean bada ibilgailu bat normalean gune komunetan aparkatu ohi dutena. Hainbat aldiz, enpresa pribatu bateko garabia ekartzeko deitu dugu, baina ezezkoa ematen dio ibilgailua gune komunitetik kentzeari edo lekualdatzeari, baldin eta jabea bertan ez badago. Nola konpondu dezakegu arazo hau?

Higiezinen jabeek edo maizterrek maiztasunez inbaditzen badute garaje plazan jabetza eskubidea edo ibilgailuak garajeko gune komunetan aparkatzen badituzte, Prozedura Zibilaren Legearen araberrako epai-akzio bat bultzatu ahal izango da. Horren helburua izango da demandatuaren aurkako sententzia bat lortzea gune komunetan zein beste jabeakideen aparkalekuan ibilgailua utzi ez dezan. Kondenatuak epaia bete ezean derrigorrez betearaziko zaio. Gainera, eragindako kalte-galerak ordaindu beharko ditu. Bestalde, bere jokabidea errepikatuz gero, epai-agintearen desobedientzia delitupean eroriko litzateke.

Aholkua: Jabe komunitateak Jabetza Horizontalaren Legearen araberrako neurriak hartu ahal izango ditu. Beraz, presidenteak, administratzailearen bitartez, jabe edo maizterri eskatu beharko dio jokabide desatsegin hori uzteko. Horrela egiten ez badu batzar batean adostuko dute ekintza judicialak hastea bere jarrera bertan behera laga dezan.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Zorionak, **Maite**,
astelehenean
8 urte beteko
dituzulako. Segi
horrelako alai
izaten. Muxuak
famiakoen
partez.



Zorionak, **Lea**,
asteazkenean
5 urte bete
zenituelako. Muxu
potolo bat, maite
zaitugun guztion
partetik.



Zorionak, **Aner!**
9 urte handi
igandean! Jarraitu
beti bezain alai!
Asko maite zaitu-
gu. Famiakoen
partez.



Zorionak, **Jone**,
atzo 12 urte
egin zenituelako.
Famiako denon
partez, muxu
handi bat.



Zorionak, **Paul!**
Igandean 7 urte
handi! Muxu pila
etxeko guztion,
eta bereziki,
Luciaren partez.
Maite zaitugu!

EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH WUUU28T64ES ARROPA GARBIGAILUA



479 €



- 8 kg-ko karga
- 1400 b/min.
- Speed perfect
- Geldialdia eta karga funtzioa
- Amaiera geroratu

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

BESTE MODURA

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko
oliba-olio birjina estra, kontserbak,
ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz
etiketatuta eta jatorrizko prezioan

DENONA DA ONURA



EGIN ESKAERA! >>

Martxoak 10-26 / errigora.eu



7 BARIKUA

Denden ordutegian, Stock kale azoka. Txan-kakuak antolatuta, denden atarietan.

17:00 Nerabeen Eguna antolatzeko bilera. Aita Agirreko areto nagusian.

8 ZAPATUA

Denden ordutegian, Stock kale azoka. Txan-kakuak antolatuta, denden atarietan.

10:30 Pilota Eguna. Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazan.

9 DOMEKA

11:00 Kadeteen txirrindulari lasterketa. Mendaron.

16:30 Antzerki familiarra: 'Eneko eta Ixabel bertako elikagaien bila'. Eidabe produkzioak taldearen eskutik. Herriko Antzokian.

12 EGUAZTENA

16:30 'Jakin dezazun nahi dut'. Zaintza modu partekatuan antolatzeko gidaren aurkezpena, Olaia Arana Alvarezen eskutik. Jubilatuen Biltokian.

18:00 'Arrakala'. Kattalin Miner eta Aner Peritzen arteko solasaldia Kultur Etxeko sotoan.

13 EGUENA

17:00 Kilometroetako denda zabalduko dute. Erropa kolekzio berria aurkeztuko dute. Errosario kalean, Lizzi denda egon zen lokalean.

17:30 'Gelatik plazara' bertso saioa. Mendaroko udaletxean.

19:00 Isiltasan eskolaren topaketa, Jose Cruz Igartuarekin. Kultur Etxeko sotoan.

19:00 Helduentzako ipuin kontalari saioa, Quico Cadavalekin. 'Ahoz Aho' egitasmoaren barruan, gazteleraz.

MARTXOAK 8 Elgoibar

7 BARIKUA

09:30 Autodefentsa tailerra, 14 urtetik gorako emakumeentzat. Olaizaga kiroldetegian.

19:00 Triki-poteo-berriketaldi feminista.

19:30 Tardeo feminista. Zatekeen taldearen erromeria eta DJ Galtzagorri. Maalako parkean.

21:00 Emakumeen afaria. Kultur Kafean (Izena emanda daudenentzat).

8 ZAPATUA

9:00 Mendi buelta. Meka parean elkartuta.

12:00 Kontzertua: Debarreneneko orfeoia. Kultur Etxeko sotoan.

13:15 Manifestazioa. Kalegoen plazan hasita.

14:30 Bazkaria, Sigma jatetxean.

9 DOMEKA

12:00 Antzerkia: 'La maja y la mona'. Aita Agirre kulturgunean.

11 MARTITZENA

18:00 'Gora Mauriziak!'. Elgoibarko emakume panderojoleei omenaldia. Kalegoen plazatik hasita. Segidan, *Aire* dokumentala emango dute, Herriko Antzokian.

14 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Amak'. Txalo produkzioak taldearen eskutik, Herriko Antzokian.

MARTXOAK 8 Mendaro

7 BARIKUA

17:00 Emakume historikoak eza-gutarazteko ginkana. Mendaron.

17:30 Emakume langileen borrokari buruzko erakusketa. Mendaron, Lagun Betikoak Jubilatuen egoitzako lokal zurian.

8 ZAPATUA

10:30 Autodefentsa tailerra. Gaztetxean.

12:30 Elkarretaratzea. Herriko Enparantzan.

18:30 Antzerkia: 'Mi tercer acto'. San Agustin kulturgunean.

9 DOMEKA

17:30 Zine foruma eta faxismoaren kontra borrokatu ziren emakumeen inguruko hitzaldia. San Agustin kulturgunean.



Zinea Herriko Antzokian



'Maria Callas'

7 barikua: 19:00
 8 zapatua: 19:00
 9 domeka: 19:00
 10 astelehena: 21:00

2025eko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00
 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

MARTXOA

7 BARIKUA	Yudego
8 ZAPATUA	■ Oruesagasti
	■ Garitaonandia
9 DOMEKA	■ Oruesagasti
10 ASTELEHENA	Barrenetxea
11 MARTITZENA	■ Soto
12 EGUAZTENA	Garitaonandia
13 EGUENA	Arriola
14 BARIKUA	■ Fernandez

2025 urte guztian, gauzez:

Mikel Lekunberri Alberdi. Isasi, 31 (Eibar)
 943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza, 4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Soto Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
--	---	--

M8
Emakumeen Nazioarteko Eguna

#Ni Feminista Naiz

Feminismoa zurekin bat










Andoni Segundo

Sekuoia erraldoia *Sequoiadendron giganteum*

Elgoibarko udalbatzarrak 1961eko maiatzaren 26an egindako bileran erabaki zuen Bolatokia gaur egun dagoen moduan egitea, eta 1962ko hasieran Joakin Pagolak obrari ekin zion.

Hasierako parkean 21 zuhaitz sartu zituzten, eta horietatik sei gelditzen dira gaur egun.

Zalantzarik gabe, Bolatokiko -eta nire ustez, Elgoibarko- zuhaitzik bereziena sekuoia da, parkearen atzealdean dagoena, eskaileren eta komunen ondoan.

Sekuoia bazen ezaguna AEBetako biztanleentzat, eta autore batzuen arabera, *cherokee*-tik dator haren izena, tribu indiar horren kultura garrantzi handia baitu, eta *siqua* (txerria) eta *yea* (lekua) hitzetatik baitator. Garrantzi historikoa hartu zuen, *Sequoyah* izeneko cherokeen jakintsu baten ekarpenei esker.

Lehen haziak 1853an iritsi ziren Europara. Elgoibarren, mende bat geroago landatu zuten.

Espezie honetako erraldoi bat -ezagutzen den munduko zuhaitzik handiena- AEBetako Giant Forest-en dagoen *Sherman Jenerala* da. 84 metroko altuera du eta 31 metrotik gorako perimetroa. Ia 1.500 m³ egur eta 2.100 tonako pisua kalkulaten zaizkio.

Elgoibarkoa xumeagoa da, 30 metroko altuera baitu (gutxi gorabeherako neurketa) eta 5'30 metroko perimetroa.

Neurri horiekin, egur-enpresen diru-gosea pairatu zuten sekuoiek, eta mozketak handiak egin zituzten 1880ko hamarkadatik 1920ra arte, debekatu zuten arte. Zorionez, bere zura kalitate eskasekoa eta hauskorra da, eta horrek eta, garraiatzeko sortzen zituen arazoek, ez zuten errentagarri egiten.


Gainera, protesta handiak izan ziren mozketak horien aurka. Ekintzaile ezagunena Julia *Butterfly Hill* da. 1997ko abenduan, milaka urteko sekuoia bat moztea geldiarazteko, 55 metroko zuhaitz batera igo zen, zuhaitzaren adaburuan

astebete edo bi aste egongo zela pentsatuta. Eguraldi txarra eta enpresaren erasoak eta mehatxuak jasan behar izan zituen, baina bi urte -738 egun- eman zituen zuhaitzean, 1999ko abendura arte. Ondoren, espezia babesteko legea onartu zuten.

Medikuntza naturalean erabiltzen da, nahiz eta tratamendua ez dagoen zientifikoki frogatuta.

Zaindu eta babes dezagun, beraz, Bolatokiko ikur bikain hori. Elgoibarren ere, zuhaitz mozketak arbitrario samarrak ikusi ditugu. Zorionez, gaur Baso Biziak Taldea dugu, nahiz eta askoz *Butterfly* gehiago behar ditugun.





ASIER IGLESIAS ALCONERO (Mendaro, 21 urte)

Ikasketak: Batxilergo Zientifikoa Elgoibarren.

Gradua: Informatika Ingeniaritza.

Zaletasunak: Padel, telesailak eta lagunekin denbora pasatzea.

“Informatika Ingeniaritzak hainbat espezializazio ditu, hala nola adimen artifiziala, zibersegurtasuna edo software garapena”

► **Zergatik aukeratu zenuen Informatika Ingeniaritza? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Egia esan, azken momentura arte ez nekien zer ikasi. Azkenean, Informatika aukeratu nuen, alde batetik, lan irteera onak dituelako, eta bestetik, Batxilergoan izan nuen Informatikako irakaslearengatik, haren eskolak asko gustatu zitzaizkidalako. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen, alde batetik, onarpen-erantzuna azkar jaso nuelako, eta bestetik, eskaintzen dituzten erraztasunengatik, eta, gainera, Mendarotik gertu dagoelako.

► **Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Oso positiboa. Uste dut erabaki ona hartu nuela, benetan gustuko dudana arloa delako. Informatikak hainbat espezializazio ditu, hala nola adimen artifiziala, zibersegurtasuna edo software garapena, besteak beste. Horrek aukera ematen du bakoitzak bere bidea aukeratzeko, profilararen arabera. Hala ere, argi dago informatikari bezala beti prest egon behar dela teknologia berriak ikasteko eta eguneratuta egoteko.

► **Nola definituko zenuke Mondragon Unibertsitatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Mondragon Unibertsitateko ikasketa metodologia ezberdina da. Ikasketa tradizionalaz gain, PBL (Problem-Based Learning) garaia izaten dugu, non taldeka proiektuen bidez ikasten dugun. Beste kasu batzuetan, etxean teoria bideoen bidez ikasi behar dugu, ondoren klasean praktikan aplikatzeko. Horrez gain, irakaskuntza eleanitza da, eta ikasturteetan zehar klaseak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ematen dira.

► **Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaiuzuna?, Eta, zerbait hobetzeko?**

Gehien gustatzen zaidana da ikasleoi benetan kasu egiten ditugutela eta ez garelako zerbait hutsak. Halaber, PBL garaia asko gustatzen zait, gure kabuz ikasi eta proiektu bat aurrera ateratzeko aukera ematen digulako. Hala ere, beti egoten dira hobetu beharreko alderdiak. Izan dudana esperientziaren arabera, irakasle batzuen klaseak emateko modua beste batzuen baino gehiago gustatzen zait. Eta gauza bera ikasgaietako edukiekin.

► **Lanean ari zara ikasten duzuen bitartean, Dual erduan. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu? Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?**

CodeSyntax Eibarko enpresa teknologikoan ari naiz praktikak egiten, non web orrialdeak, mugikorretarako aplikazioak eta bestelako soluzio digitalak garatzen dituzten. Nire lanpostuan, webguneen atzealdeko lana egiten dut, hau da, backend garatzailea naiz. Eredu dualak asko laguntzen dit benetako lan-esperientzia eskuratzen, enpresa batean nola lan egiten den ikasten, eta, aldi berean, enprekin harremanak sortzeko eta nire kurrikuluma hobetzeko aukera ematen dit. Nahiz eta denbora asko eskatu, merezi du, jasotzen den esperientzia oso baliotsua delako.

► **Zeintzuk dira etorkizunerako zure asmoak?**

Datorren urtean Suediara joango naiz Erasmus egitera. Alde batetik, nire profila hango ikasketekin aberasteko, eta bestetik, nire ingeles maila hobetzeko. Ondoren, baliteke atzerrian master bat egitea. Gustatuko litzaidake Adimen Artifizialari edo beste gai interesgarri bati buruzko master bat egitea.

Arrakala

Aner Peritz eta Kattalin Minerren
arteko berbaldia + mokadutxoa

Martxoak
12

Kultur etxeko
sotoan
18:00etan



ELGOIBAR IZARRA



ELGOIBAR
UDALA
ARUNTAMIENTO

